

17 urte eta 1'84 metroko garaiera duen neska honek, ia bere bizitzako urteen erdiak eskubaloian eskaini dizkio. Egun, Euskal Ligan Ermuko Jubenil mailako taldean dihardu eta

duela gutxi, Espainiako selekziora joateko deia jaso du. Maiatzean, Munduko txapelketan parte hartzea gustatuko litzaiokeela esan digu beste gauza askoren artean.

“Datorren urtean Donostiako Bera-Bera taldera joango naiz seguruenik”

Esther Larrañaga

Noiztik eskubaloian?

9 urte hasi nintzen Ikastolako taldean.

Zergatik aukeratu zenuen kirol hau?

Eskubaloia zen garai hartan neskak egiten genuen kirol nagusia. Nere gelako beste zenbaitek ere izena eman zuten eta horrela animatu nintzen.

Ondoren Ermuko taldean hasi zinen...

Bai hala da. Kadete mailako taldean hasi nintzen eta iaiztik jubenil mailan nabil. **Iaz sekulako denboraldia egin zenuten. Zer moduz doa aurtengo?**

Ezin hobeto. Sailkapenaren buruan gaude eta txapel-dun izateko aukera asko ditugu.

Espainiako selekziotik ere deia jaso omen duzu...

Duela gutxi, jaso nuen deia. Lehenago ere infantil eta kadete mailan izana nintzen nire taldeko beste zenbait bezelaxe.

Txapelketa bat jokatzeko deitu zaituzte?

Bai. Apirilean Europa mailako sailkapen txapelketa bat



jokatuko dugu eta ondoren, Munduko txapelketan parte hartzeko xedea dago. Oraindik ez didate ziurtatu, partaide izango naizen ala ez.

Etorkizunean eskubaloian aritzea nahiko zenuke?

Datorren urtean Donostiako Bera-Bera taldera joango naiz seguruenik. Talde honek nesken ohorezko mailan ditzazket aukerak baina hori denborak esango du.

Ikasketak eta kirola biak batera, nola moldatzen zara?

Momentu honetan UBI egiten ari naiz. Orainarte ondo moldatu naiz eta aurrerantzean ere saiatu beharko da.

Nesken eskubaloiak badu oiar-tzunik gizartearen?

Ez behar luken adina baina astiro astiro, erakusten ari gara geure dohaiak. Egun, adibidez oso zaila da nesken eskubaloian talde batetik bizi-tzea.

Asier Ibaibarriaga

Boavista buruan, sei puntuko aldeaz

Azken jardunaldietan lorturiko emaitza onei esker, Boavista taldea sailkapenaren buruan ageri da. Centro Gallego eta Juventud dira hurrenak sei puntura.

Denboraldia amaitzeko makina bat partidua gelditzen diren arren, liga txapelketako garaipena hiru talde hauen artean izango dela esan liteke.

SAILKAPENA	J	P
1- Boavista	14	36
2- C.Gallego	14	30
3- Juventud	13	30
4- C.Leon	14	23
5- Murruga	14	22
6- Carrozaz	14	22
7- Mallabitarrak	14	20
8- R.Nosvic	13	17

Dantza solte txapelketa eta Euskal Jaia

Datorren apirilaren 15ean dantza solte txapelketa ospatuko da Kardinal Orbe plazan, arratsaldeko sei eta hiru orak artean. Dantza txapelketaren ondoren, iluntzeko zortzietan, Larraintza dantzatuko da.

Hurrengo egunean, apirilaren 16an Euskal Jaia burutuko da. Ermuko dantza talde guztiek batera antolatuko dituzte bai Euskal Jaia eta baita aurrez aipatutako ekintza guztiak ere.

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...
prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

Kirola - moda

HOBBY SPORT
HOBBY SPORT
HOBBY SPORT

Probaleku, 8
Tel. Fax: (943) 17 09 13 48260 Ermua

QUETZAL

Opari denda

Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62